

## Joseba Rezola eta diskretasuna

*Deia*, [1984-11-02].

Joan den egunean extradizioak direla eta *Deia* aldizkari honetan bertan argitaratu zidaten lantxo batetan, zera aipatu nuen: bigarren mundu-gerrondoan Europako Komunitatearen lehen urratsak eman zituzten gizon prestuekin Agirre Lehendakariak izan zituen harreman estuak.

Gure herriak izan duen lehenbiziko Lehendakaria 1960an, goizegi, joan zitzaigun; honen ondoren Leizaola jaunak izan zuen Lehendakariordea, Xabier Landaburu, handik laster, hau ere goizegi, itzali zitzaigunean, Joseba Rezola izan zen Eusko Alderdi Jeltzaleak aukeratua Landaburu jaunari ordezteko, eta izendapen honekin batera jaso zuen honek NEI (Nouvelles Equipes Internationales) eta gero UEDC (Unión Europea Demócrata Cristiana) erakundeetan jarraitzeko mandatua; Rezola jaunak eskuartean erabili zituen gaiak oso delikatuak eta diskretasun handiarekin erabili behar zirenak izan ziren hain zuzen: espetxeratuak, errepresaliatuak, persegituak eta herbesteratuak, bai Euskadin eta baita Europan eta Ameriketean ere.

Gaurko egoerak izan baitu aurrekorik Ameriketean, Europan eta geure herrian.

Joseba Rezolaren izpiritua Hegoaldean aspaldi gurekin bagenuen ere, honen hezurak Ordiziratu berri dizkiguten honetan, gizon eta abertzale handiak berea zuen birtute hau gogarazi dit: bere diskretasuna. Ez dut orain dotrina hau gizon baten gorazarre hutsa egiteko asmotan aipatzen; aspaldidanik aitortu nizkien neuk Josebari, eta Aurora bere emazte leialari, beranganako izan dudan mirespena; baina gure herriko gizon ospatsuak lagundu behar gaituzte bere exenploarekin krisialdietan herri barruko bideak argitzen.

Zein izango zen Rezolaren sentimendua geure gaurko bidegurutze honetan?

Galdera ez da alferra.

Gaur zenbatetan galdua dugula uste dugun diskrezioaren eredu aberats hau ez litzaiguke gaizki etorriko. Bakoitzak erantzun beza nahi edo ahal duen modura. Nire aldetik esan dezadan, maiz egin didatela itaun hau, ea zergatik ez dudan gaurko geure egoera nahasi honetan gehiago idazten, eta ea egin dudan pitin hau zergatik egin dudan euskaraz, euskararen irakurlegoa hain eskasa dela jakinik. Nire erantzuna zorrotzagoa izan zitekeen, baina hara laburki nire bi puntu: bat, dagoeneko asko baino gehiago (hango eta hemengo, mundua!) ari da horretan, eta nire ikuspuntu abertzale-nazionalista aspaldidanik eta askotan adierazi dudanez gero, bihotza eta gibela buruari gainez egin eta behazuna nagusi den giro honetan alfer-alferrikakoa iruditu zait hainbesteko hitz jarioari neure hitza eranstea, ez bait du inork ezer zuzen ulertzen eta; eta bi: euskara egin dudan apurra, abertzaleok ezkutuagoko klabeaz osatutako hizkuntzarik ezagutzen ez dudalako izan da.

Eskandalu gehiegi eman dugu erdara kastizoenean (batzutan mozorroarekin inhaunterietan egiten duten moduan, izen garbiz esanak izenpetu gabe), gu geu maite ez baina gorrotatu bai, eta asko, egiten gaituztenen aurrean.

Arrisku handietan jartzen ari gara dena.

Ez dakit zeharo ongi egin dudan ala ez; baina egiaren bila banabil, ezin dut orain, Joseba Rezolak emandako exemploaren aurrean, gezurrik esan: aitortuko dut, bai, nire ixilune hau ez dela pakea izan, gerra baino; idazten hasi eta hitz lodiegien aurrean nire kontzientzia ikusi dudanean ez dut neuk salatu nahi nuen zingira horretara lohi gehiago bota, nahi eta neurririk aurki ezineko borrokan ito ditut nire ezinak.